

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Amurrioko Udala**

**Ayuntamiento de Amurrio**

**2019**





## AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	8
II.1    Legea betetzeari buruzko iritzia .....	8
II.2    Urteko kontuei buruzko iritzia .....	9
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK .....	10
III.1    Aurrekontua eta kontabilitatea .....	10
III.2    Langileria.....	11
III.3    Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	11
III.4    Kontratazioa.....	11
III.5    Beste batzuk.....	12
IV. FINANTZAREN ANALISIA.....	13
V. URTEKO KONTUAK.....	17
V.1    Udala eta Amurrioko Udalaren Musika Fundazioa.....	17
V.2    Amurrio Bidean SA Udal Sozietatea .....	20
ERANSKINAK .....	21
A.1    Fiskalizazio-gai den erakundearen izaera.....	21
A.2    Aurrekontua eta kontabilitatea .....	21
A.3    Zergak, tasak eta bestelako sarrerak .....	22
A.4    Transferentziek eta dirulaguntzek eragindako sarrerak .....	24
A.5    Langileen gastuak.....	25
A.6    Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa .....	27
A.7    Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	29
A.8    Inbertsio errealak eta aktibo ez arrunta.....	30
A.9    Zorpetzea .....	31
A.10   Zordunak.....	31
A.11   Hartzekodunak .....	33
A.12   Hirigintzako jarduerak eta plangintza.....	33
A.13   Amurrioko Udalaren Musika Fundazioa erakunde autonomoa.....	34
A.14   Amurrio Amurrio SA udal sozietatea.....	34
A.15   Kontratazioa.....	36



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

<b>ABREVIATURAS</b> .....	<b>39</b>
<b>I. INTRODUCCIÓN</b> .....	<b>41</b>
<b>II. OPINIÓN</b> .....	<b>42</b>
II.1    Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	42
II.2    Opinión sobre las cuentas anuales .....	43
<b>III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL         INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN</b> .....	<b>44</b>
III.1    Presupuesto y contabilidad .....	44
III.2    Personal.....	45
III.3    Transferencias y subvenciones concedidas .....	45
III.4    Contratación .....	45
III.5    Otros .....	46
<b>IV. ANÁLISIS FINANCIERO</b> .....	<b>47</b>
<b>V. CUENTAS ANUALES</b> .....	<b>51</b>
V.1    Ayuntamiento y Fundación Municipal de Música de Amurrio.....	51
V.2    Amurrio Bidean, SA .....	54
<b>ANEXOS</b> .....	<b>55</b>
A.1    Naturaleza del ente fiscalizado.....	55
A.2    Presupuesto y contabilidad .....	55
A.3    Impuestos, tasas y otros ingresos .....	56
A.4    Ingresos por transferencias y subvenciones .....	58
A.5    Gastos de personal .....	59
A.6    Compra de bienes corrientes y servicios.....	61
A.7    Transferencias y subvenciones concedidas .....	63
A.8    Inversiones reales y activo no corriente .....	64
A.9    Endeudamiento .....	65
A.10   Deudores.....	65
A.11   Acreedores .....	67
A.12   Actuaciones urbanísticas y planeamiento .....	67
A.13   OA Fundación Municipal de Música de Amurrio .....	68
A.14   Sociedad municipal Amurrio Bidean, SA .....	68
A.15   Contratación .....	70

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 19a  
Vitoria-Gasteiz, a 19 de julio de 2021



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## LABURDURAK

AASS	Arau Subsidiarioak.
AFA	Arabako Foru Aldundia.
ALH	Arabako Lurralde Historikoa.
ALHAO	Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala.
AO	Administrazio Orokorra.
BPG	Barne Produktu Gordina.
EA	Erakunde Autonomoa.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
ED	Errege Dekretua.
EIOZ	Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga.
EPE	Enplegu Publikoaren Eskaintza.
FA	Foru Araua.
FAG	Foru Agindua.
FEDER	Eskualdearen Garapen Ekonomikorako Europako Funtsa.
FOFEL	Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsa.
GLL	Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.
GODG	Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina.
HAPO	Hiri Antolaketako Plan Orokorra.
HHS	Hiri-hondakin solidoak.
HILBIZ	Hiri Izaerako Lursailen Balio Igoeraren gaineko Zerga.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
JEZ	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.
LZ	Lanpostuen zerrenda.
OHZ	Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.
PFEZ	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.
TAOAL	7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen.
TMIZ	Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga.
TTEE	Toki Entitateak.





## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osoko Bilkurak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraikiz, Amurrioko Udalaren 2019ko Kontu Orokorraren fiskalizazio-lana mamitu du.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: aurrekontuaren honako atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta dirulaguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea kaltetu gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako hauek besarkatzen ditu: Udalaren eta bere erakunde autonomoaren balantzea, ekonomiaren eta ondarearen emaitzaren kontua eta oroitidazkia ez ezik, Udalaren eta bere erakunde autonomoaren adierazitako egoerak eta aurrekontuaren likidazio bateratua ere bai.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Alabaina, fiskalizazioan sortu diren alderdi partzialak Txosten honen III. Idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Amurrioko Udalak 10.350 biztanle zituen 2019ko urtarrilaren 1eko biztanleen udal erroldaren arabera, eta antolamenduan Udalaz gain Amurrioko Udalaren Musika Fundazioa erakunde autonomoa (ikus A.13) eta Amurrio Bidean SA sozietate publikoa (Udalaren partaidetza % 100) barne hartzen ditu (ikus A.14).

Horrezaz gain, Aiarako Kuadrillako atal da (hiri-hondakin solidoak kudeatzeko eta ekonomia eta enplegua sustatzeko zerbitzuak, besteak beste), eta Kantauriko Urkidetza partzuergokoa (uraren ziklo integralaren kudeaketa) eta Haurreskolak partzuergokoa (haurtzaindegien kudeaketa).



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## II. IRITZIA

### II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

#### LANGILERIA

1. Udalak aldi baterako kontratazioak egin ditu behin eta berriz udal eskola artistikoko plantillaren egiturazko beharrei aurre egiteko. Horren ondorioz, 2019an zazpi langilek lan-kontratu mugagabe ez finkoko langile izaera hartu dute (ikus A.5).

#### KONTRATAZIOA

2. Udalak 2019ko ekitaldian energia elektrikoa hornitzeko zerbitzua kontratatu zuen, guztira 345.242 euroren zenbatekoan, esleipen prozedurari dagozkion betekizunak saihestuta eta publikotasun eta lehia printzipioak urratuz. Kontratazio hori, baina, arautze harmonizatuari lotutako kontratueterako aurreikusitako izapidetzeari meneratu behar zitzaiokeen.
3. Udalak Bañueta kiroldegiaren kudeaketari dagozkion 327.575 euroren gastuak egikaritu ditu, 2017ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31ra bitartekoak, kontratuaren indarraldia amaitu eta esleipen berria indarrean jarri artekoak (ikus A.6).
4. 2019ko ekitaldian Udalak bi zerbitzuri zegozkien gastuak egikaritu zituen kontratuen indarraldia amaitu ostean, 136.993 euroren zenbatekoan (ikus A.15.2).

Epaitegi honen iritzira, Amurrioko Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeek, 1etik 4ra bitarteko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete dute 2019ko ekitaldian ekonomia eta finantzaren jarduera arautzen duen lege araudia.





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

- Hona hemen Udalaren Gastu Orokorren Diruzaintza Geldikinean eta Ondare Garbian eragina duten doiketak 2019ko abenduaren 31n:

KONTZEPTUA	GODG	ONDAREKOA		
		AKTIBOA	PASIB.	OND. GARBIA
A.3 Hiri-hondakin solidoen bilketa, garraio eta deus.-tasak, 2016 eta 2017 ...	705	705	-	705
A.3 Ibilgailuak sartu eta aparkatzeko erreserbengatiko gehiegizko tasak.....	(56)	(56)	-	(56)
A.3 Lurzoru, zorupe edo hegalaren aprob. bereziag. tasak, kontab. gabe .....	-	211	-	211
A.6 Bañueta kiroldegiaren 2019ko defizita kontabilizatu gabe .....	-	-	140	(140)
A.10 Zalantzako kobragarritas. saldoen balioespenaren zuzenketa.....	-	358	-	358
A.11 Aurrekontuari egozteko dauden fakturak .....	(413)	-	-	-
A.11 Erregularizatzeko dauden aurrekontuz kanpoko hartzekod. saldoak .....	80	-	(80)	80
A.11 Erregularizatzeko dauden aurrekontuko hartzekodunen saldoak .....	291	-	(291)	291
<b>GUZTIRA</b>	<b>607</b>	<b>1.218</b>	<b>(231)</b>	<b>1.449</b>

- Udalak ez ditu 2015az geroztik HILBIZen likidazioak egin, eta ez ditu onartu 2020ko ekitaldira arte hiri-hondakin solidoak bildu, garraiatu eta ezabatzeko zerbitzua emateagatiko 2019ko tasak, 395.839 eurorenak; honenbestez, diru-sarrera horiek ez dira kontabilitatean erregistratu (ikus A.3).
- Kontu Orokorrak ez du eman lurzati baten erosketa-prezioa -797.562 euro- geroago ordaintzeari buruz dagoen konpromisoaren berri, eta horri 2006ko irailaren 30etik aurrera sortutako interesak gehitu behar zaizkio (ikus A.10).

Epaitegi honen iritzira, 1etik 3. paragrafora bitartean adierazitako salbuespenak alde batera, Amurrioko Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2019ko ekitaldiaren jardura ekonomikoa eta abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, araudian jasotako kontularitzako printzipioen eta irizpideen arabera.

### III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasotzen dira jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak eta kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak.

#### III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2019ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra ez zen behin betiko onartu 2018ko abenduaren 31 baino lehenago, ezargarria zaion aurrekontuko araudiak agintzen duen moduan (ikus A.2).
- 2019ko Kontu Orokorra ez zaio Osoko Bilkurari onartzeko aurkeztu 2020ko azaroaren 26ra arte (ikus A.2).
- Udalaren eta Amurrioko Udalaren Musika Fundazioaren aurrekontu-likidazioek aplikatu beharreko aurrekontu-araudiak eskatzen duen dokumentazioaren zati bat baino ez dute jasotzen banaka, eta gainerakoa bi erakundeen datu bateratuekin aurkezten da.
- Kontu orokorra osatzen duten gainerako egoerak eta urteko kontuak ere ez dira banaka egiten, bateratuta baino ez dira aurkezten.
- Aurrekontu-emaitza doitua kalkulatzeko, ekitaldi itxieran metatutako finantzaketa-desbideratzeak (193.536 euro) hartu dira kontuan, eta ez ekitaldiko desbideratzeak. Azken horiei dagokienez, positiboak dira 107.065 euro, eta ez zeinu negatibokoak, 77.038 euro; horrek esan nahi du aurrekontuaren emaitza doitua likidazioan aurkeztutakoa baino 86.471 euro handiagoa dela. Zuzenketa horiek ez dute eraginik Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikinean.
- Gastu-araua betetzeari dagokionez, 2019ko Kontu Orokorrean jasotako kalkulua egiteko, aurrekontuan jasotako zenbatekoak hartzen dira kontuan, ez benetan gauzatutako gastuak, eta, oker, ondorioztatzen da ez dela legezko muga gainditzen eta ez dela nahitaezkoa plan ekonomiko eta finantzario bat onartzea. 2020ko ekitaldiari dagokion aurrekontuari buruzko kontu-hartzailtza txostenak agerian uzten du ez dela bete gastu-araua, eta 2020ko irailaren 24an Osoko Bilkurak plan ekonomiko eta finantzario bat onartu du urte horretarako eta hurrengo urterako.
- Udalaren eta Amurrioko Udalaren Musika Fundazioa erakunde autonomoaren aurrekontu plantillek ez dituzte kreditu zuzkidurak oinarrizko ordainsari, lanpostu mailako osagarri eta berariazko osagarriaren arabera antolaturik zerrendatzen.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### III.2 LANGILERIA

- Udaleko lanpostuen zerrendan ez dago Diruzaintza izeneko lanposturik, gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioentzat erreserbatuta. Hori nahitaezkoa da, udal-idazkaritza bigarren mailan sailkatuta baitago.
- Amurrioko Udalaren Musika Fundazioaren LZk ez du adierazten lanpostuak funtzionarioentzat, lan-kontratudun langile finkoentzat edo behin-behineko langileentzat erreserbatuta dauden, ezta esleitutako hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data ere.
- Aipatutako LZko lanpostu guztiak hutsik daude. Amurrioko Udalaren Musika Fundazioak aldi baterako kontratazioen bidez betetzen ditu bere langile-beharrizan guztiak, eta plantillaren batez besteko antzintasuna, 2019ko itxieran, 15 urtekoa da.

### III.3 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

Udalak ez du dirulaguntzen plan estrategikorik, eskuratu asmo diren helburu eta ondorioak, horiek lortzeko behar den epea, aurreikusgarri diren kostuak eta finantzaketa iturriak zehaztuko dituen.

### III.4 KONTRATAZIOA

Udalak ez ditu udal kudeatzaileen eta zerbitzu-kontratuen esleipendun diren enpresetako langileen arteko harremana argitzeko eskatutako jarraibideak ebatzi, lan harreman baten aitortza eragin zezaketen ekintzak erabakigarri izatea saihestearren.

#### Kontratazio-espeditenteak (ikus A.15.1)

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden zazpi kontratu aztertu ondoren, honako alderdi hauek azaleratu zaizkigu:

- Guztira 1,4 milioi euroren zenbatekoan esleitutako hiru kontratutan (3, 4 eta 7 espeditenteak) honako akats hauek azaleratu dira pleguetan barne hartutako esleipen irizpideetan:
  - Kontratu batek (4 zk. espeditentea) esleipen irizpide modura hobekuntza teknikoak jasotzea barne hartzen zuen, zein elementuren gainean eta zein baldintzatan baimentzen den horiek egitea zehaztu gabe.
  - Kontratu baten pleguetan barne hartutako formula aplikatzean (7 zk. espeditentea), prezio batek lizitazio tipoa berdinduz gero, puntuazio positiboa eskuratuko luke eskaintza ekonomikoaren irizpidea baloratzean. Beste bi kontratutan (3 eta 4 zk. espeditenteak) asebetetze-atalaseak finkatzen dira irizpide hori baloratzean eta horrek eskaintza ekonomikoagoak eskuratzeko pizgarria kentzen du.
- Guztira 677.833 euroren zenbatekoan esleitutako bi kontraturen pleguek (1 eta 7 zk. espeditenteak) ez dute apirilaren 7ko 3/2016 Legeak agindutako hainbat ohar edo informazio jasotzen, kontratazio publikoan klausula sozial jakin batzuk barne hartzeari dagokionez. Gainera, aipatutako kontratuen eta beste baten -833.615 euroan



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

esleitutakoa (2 zk. espedientea)- esleipen-ebazpenek ez dute ezargarria den hitzarmen kolektiboari buruzko informaziorik jasotzen, aipatutako arauak agintzen duen moduan.

- Hiru kontraturen behin betiko bermearen zenbatekoa kalkulatzeko (3, 4 eta 7 zk. espedienteak), guztira 1,4 milioi euroan esleitutakoetan, urte-sari bakar bat hartu zen kontuan eta ez kontratuak egikaritzeko epea osotara, lau urte, alegia. Kasu batean (4. espedientea), esleitutako prezioa, bai esleipen-ebazpenean bai formalizatutako kontratuan, urteko bakarrekota zen.
- Urte eta erdiko atzerapenez hartu zen obra bat (1. espedientea), egikaritze-epea 5 hilabeteko zuelarik. Ez da jaso epea eteteko edo luzatzeko aktarik.
- Beste kasu batean (2. espedientea), behin obrak egiteko epea, 4 hilabetekoa, amaitu ondoren, epe hori beste 4 hilabetez luzatzeko erabakia hartu zen, eta, ondoren, 5 hilabeteko atzerapena gertatu zen lanak jasotzean, eta ez da jasota geratu beste epe-luzapenik onartu zenik edo kontratistari zigorrik ezarri zitzaionik. Egikaritzeko epea murriztea izan zen baldintza-agirietan jasotako esleipen-irizpideetako bat.

### **Administrazio-kontratazioko espedienterik gabeko gastuak (ikus A.15.2)**

- Udalak 2019ko ekitaldian hornidura bati eta zerbitzu bati zegozkion gastuak kontratatu zituen, guztira 78.509 euroren zenbatekoan, nahitaezko prozedurak izapidetu gabe; kopuruak aintzat hartuta, prozedura horiek ireki erraztu laburtuak izan zitezkeen.
- 2019ko ekitaldian Udalak zerbitzu bati zegozkion gastuak egikaritu zituen kontratuaren indarraldia amaitu ostean, 33.545 euroren zenbatekoan.

### **III.5 BESTE BATZUK**

- Udalak ez du gordailu bat eratu bere izenean dagoen kontu berezi batean, diru-sarrera ekonomikoak sortzen dituzten erabilera eta aprobetxamendu menditar guztien zenbatekoaren % 15ekin, eta hori mendiak hobetzearekin lotutako inbertsioetarako bakarrik erabili ahal izango da. 2019ko ekitaldian, hobekuntza-funts horretara 84.146 euro bideratu ziren.



#### IV. FINANTZAREN ANALISIA

Udalak eta bere erakunde autonomoak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera honako taula honetan dago zehaztua.

	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	URTEA			URTEA		
	2017(*)	2018(*)	2019	2017	2018	2019
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	4.595	4.791	5.109	447	466	494
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.).....	6.286	6.379	7.053	611	620	681
Ondare sarrerak (5. kap.).....	157	500	718	15	48	69
<b>A. Sarrera arruntak</b> .....	<b>11.038</b>	<b>11.670</b>	<b>12.880</b>	<b>1.073</b>	<b>1.134</b>	<b>1.244</b>
Langile-gastuak (1. kap.).....	4.325	4.559	4.803	420	443	464
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak (2. kap.).....	4.239	4.219	4.569	412	410	441
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.).....	1.507	1.556	1.629	147	151	157
<b>B. Funtzionamendu-gastuak</b> .....	<b>10.071</b>	<b>10.334</b>	<b>11.001</b>	<b>979</b>	<b>1.004</b>	<b>1.062</b>
<b>Aurrezki gordina (A-B)</b> .....	<b>967</b>	<b>1.336</b>	<b>1.879</b>	<b>94</b>	<b>130</b>	<b>182</b>
- Gastu finantzarioak (3. kap.).....	-	-	-	-	-	-
<b>Emaitza arrunta</b> .....	<b>967</b>	<b>1.336</b>	<b>1.879</b>	<b>94</b>	<b>130</b>	<b>182</b>
- Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	202	122	122	20	12	12
<b>Aurrezki garbia</b> .....	<b>765</b>	<b>1.214</b>	<b>1.757</b>	<b>74</b>	<b>118</b>	<b>170</b>
Inbertsio errealen besterentzea (6. kap.).....	37	21	79	3	2	8
Jasotako kapitaleko dirulaguntzak (7. kap.).....	730	1.004	443	71	97	43
- Inbertsio errealak (6. kap.).....	2.595	1.084	1.231	252	105	119
- Emandako kapitaleko dirulaguntzak (7. kap.).....	67	55	15	6	5	2
Kapitalezko eragiketen emaitza.....	(1.895)	(114)	(724)	(184)	(11)	(70)
Eragik. ez finantzarioaren emaitza (1etik 7rako kap.).....	(928)	1.222	1.155	(90)	119	112
Diruzaintza geldikina.....	5.315	6.244	7.151	516	607	691
Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina.....	5.204	6.055	6.853	506	589	662
<b>Zorpetzea</b> .....	<b>244</b>	<b>122</b>	<b>-</b>	<b>24</b>	<b>12</b>	<b>-</b>

(\*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

**Sarrera arruntak:** 2018an % 6 egin dute gora aurreko ekitaldiaren aldean eta 2019an % 10tik gorako igoera osagarri handiagoa erregistratu du; honenbestez, aztertutako aldiaren guztira % 17 inguruko bariazioa positiboa izan dute. Hona hemen bariazio azpimarragarrienak:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak, tasak eta bestelako sarrerak:** Bilakaera diru-sarrera arruntek oro har izandakoaren antzekoa da, nahiz eta urtetik urterako aldakuntzak (% 4 eta % 7) eta aztertutako aldiaren izandako guztizko gehikuntza (% 11) apalagoak izan. Igoera hori EIOZak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzuari eta ibilgailuak espaloietatik sartzeagatik aprobetxamendu bereziari dagozkien tasei lotuta dago. Azken tasa horren kasuan, bariazio-tasa ez da erreala, baizik eta 2019an diru-sarrera bikoiztuak kontabilizatzearen ondorio eta, era berean, 2018ko errolda kontabilizatzearen ondorio, ekitaldi horretan ez baitzen diru-sarrerarik erregistratu kontzeptu horren izenean (ikus A.3). Hiri-hondakin solidoen kasuan, izandako igoera ere ez da erreala,



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

baizik eta 2017ko eta 2018ko ekitaldietan diru-sarreraren zati bat bakarrik kontabilizatu izanaren ondorio (ikus A.3).

- **Transferentziak eta dirulaguntza arruntak:** % 12 egin dute gora aztertutako aldian, batik bat, 2019an izandako igoeraren eraginez. Hala ere, zehaztu behar da igoera horren arrazoia dela, neurri batean, 2018ko ekitaldian GLLen finantzaketa-funtsen kontabilizazioan aplikatutako irizpideak aldatu izana, horrek eragina baitu ekitaldi horretako diru-sarrera txikiagoen erregistroan. Gainerakoan, aztertutako aldian diru-sarrerek izandako igoera, batez ere, zerga itunduetako partaidetzari (FOFEL) dagozkion diru-sarreraren bilakaerari zor zaio.

**Funtzionamendu-gastuak:** Aztertutako aldian % 9ko igoera izan zuten, sarrera arruntek izandakoaren aldean bi puntu azpitik. Hona hemen alderdi esanguratsuenak aurrekontuko kapituluaren arabera:

- **Langile-gastuak:** Aztertutako aldian % 5etik gorako urte arteko igoerak izan dituzte, eta gastuaren bariazioa, guztira, % 11koa izan da. 2019an izandako igoera, batez ere, aplikatutako soldata-igoerari, zenbait lanposturen destino-osagarrien aldaketari (ikus A.5) eta enplegu-planen bidez kontratatutako langileei dagokien gastuaren igoerari zor zaio.
- **Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa:** Kontzeptu horrek eragindako gastua ez da ia aldatu 2018an aurreko ekitaldiarekiko, baina 2019an % 8ko igoera izan du. Igoera horretan eragiten dute kiroldegiaren 2017ko kudeaketa-defizitari dagokion gastuak, 106.688 eurorena (ikus A.6) eta kiroldegia kudeatzen duen enpresari egindako beste ordainketa batzuek, bai eta, neurri txikiagoan, energia elektrikoaren hornidura-gastuek eta ibilgetuaren konponketa- eta kontserbazio-gastuek izandako igoerak ere.
- **Transferentziak eta dirulaguntza arruntak:** Kontzeptu honek eragindako gastuak % 3 egin zuen gora 2018ko ekitaldian aurreko ekitaldiaren aldean eta 2019an gora egin zuen berriz gastuak; horren ondorioz, aztertutako aldian bariazioa guztira % 8 ingurukoa izan da. Igoera horietan bereziki eragiten du Aiarako Kuadrillarako ekarpenen bilakaerak, aztertutako ekitaldietan kapituluko gastu guztien % 25 inguru baitira.

**Aurrezki gordina eta aurrezki garbia:** Bi magnitudeek saldo positiboa erakutsi dute aztertutako aldiaren hiru ekitaldietan eta, gainera, goranzko bilakaera dute, epe horretan igoeren bariazioa, hurrenez hurren, guztira % 94 eta % 130 izan delarik; honela, bada, 2017ko ekitaldian sarrera arrunten gainean % 9 eta % 7 izatetik, 2019an sarrera arrunten % 15 eta % 14 izatera aldatu dira, hurrenez hurren.

**Kapital-eragiketen emaitza:** Magnitude honek saldo negatiboa izan du aztertutako aldi guztian, nahiz epe horretan sortutako aurrezki garbiak kapital-eragiketen defizit horri aurre egiteko lain eman duen.



**Eragiketa ez-finantzarioen emaitza:** 2017an negatiboa izan zen, baina positibo izatera aldatu zen aztertutako beste bi ekitaldietan, hein handi batean, inbertsio errealen gastua murriztu izanaren ondorioz.

**Diruzaintza Geldikina:** Goranzko bilakaera izan du, eta 7 milioi euro inguruko zifrak jo ditu aztertutako aldiaren amaieran; Epaitegi honek proposatutako doikuntzak kontuan hartuz gero, magnitudea 7,6 milioi eurorena da.

**Zorpetzea:** Aztertutako aldiaren hasieran indarrean zeuden eragiketak erabat amortizatu dira ekitaldian zehar; honenbestez, ez dago zorpetzerik 2019 itxieran (ikus A.9).

**Ondorioa:** Udalak egoera ekonomiko onbideratua erakusten du, funtzionamendu normalari eusteko eta etorkizuneko inbertsioei zorpetu beharrik izan gabe aurre egin ahal izateko behar hainbat baliabide dituela. Hala ere, adierazi behar da 2020an diru-sarrerak nabarmen murriztea aurreikusi dela, bai bilketa propioa, bai zerga itunduetako partaidetza ere, COVID-19 pandemiaren ondorioz.

**Aurrekontuaren egonkortasuna:** Udalaren Kontu-hartzaitzak txostena egin du aurrekontuaren egonkortasun-printzipioa eta gastuaren eta zor publikoaren araua betetzen dela adieraziaz. Txostenak Udalari eta bere erakunde autonomoari dagokionez honako hau jasotzen du 2019ko ekitaldiko aurrekontuen likidazioa dela-eta:

- Aurrekontuaren egonkortasun helburua bete da, kopuru bateratuetan eragiketa ez finantzarioen superabita izan baitu.
- Gastuaren araua bete da, izan ere 2018ko ekitaldiaren aldean zenbakarria den gastuaren bariozioak ez zuen Espainiako ekonomiaren epe ertaineko BPGaren erreferentziako hazkuntza tasa gainditu (% 2,7) (ikus III.1).
- Zor publikoaren helburua bete du, Udalak ez baitzuen zorrik 2019ko ekitaldi itxieran (ikus A.9).







Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## V. URTEKO KONTUAK

### V.1 UDALA ETA AMURRIOKO UDALAREN MUSIKA FUNDAZIOA

2019KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE KITAT.	KOB.R. KOB.R.	KOB.R. GABEA	%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.				
1. Zerga zuzenak .....	A.3	3.078	-	3.078	3.057	1.514	1.543	% 99
2. Zeharkako zergak .....	A.3	390	-	390	395	109	286	% 101
3. Tasak eta bestelako sarrerak .....	A.3	1.964	-	1.964	1.657	1.131	526	% 84
4. Transferentzia arruntak .....	A.4	6.721	116	6.837	7.053	7.053	-	% 103
5. Ondare-sarrerak.....	A.15	699	-	699	718	705	13	% 103
6. Inbertsio errealen besterentzea .....		-	-	-	79	65	14	E/E
7. Kapitalezko transferentziak.....	A.4	1.648	547	2.195	443	443	-	% 20
8. Aktibo finantzarioak .....		10	1.744	1.754	9	9	- (*)	% 90
9. Pasibo finantzarioak.....		1.744	(1.744)	-	-	-	-	E/E
<b>DIRU-SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>16.254</b>	<b>663</b>	<b>16.917</b>	<b>13.411</b>	<b>11.029</b>	<b>2.382</b>	<b>% 79</b>

(\*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza-geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG. AITORT.	ORDAINK. ORDAINK.	ORDAIN. GABE	%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.				
1. Langileen gastuak .....	A.5	5.153	-	5.153	4.803	4.695	108	% 93
2. Ondasun arrunt eta zerbitz. kontrat. ....	A.6	5.286	33	5.319	4.569	4.396	173	% 86
3. Gastu finantzarioak.....		2	-	2	-	-	-	% 0
4. Transferentzia arruntak .....	A.7	1.797	(22)	1.775	1.629	1.310	319	% 92
6. Inbertsio errealak .....	A.8	3.803	694	4.497	1.231	1.166	65	% 27
7. Kapitalezko transferentziak.....	A.7	76	(42)	34	15	15	-	% 44
8. Aktibo finantzarioak .....		15	-	15	10	10	-	% 67
9. Pasibo finantzarioak.....	A.9	122	-	122	122	122	-	% 100
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>16.254</b>	<b>663</b>	<b>16.917</b>	<b>12.379</b>	<b>11.714</b>	<b>665</b>	<b>% 73</b>

#### AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.	KOB.R./		AZKEN
		ZORRA	BALIOG.	ORDAIN.	
Kobratzeko dauden saldoak .....	A.10	3.349	441	2.315	593
Ordaintzeko dauden saldoak .....		1.082	8	705	369
<b>AURREKONTU ITXIEN EMAITZA</b>			<b>(433)</b>		

#### KONPROMISO KREDITUEN EGOERA

Euroak milakotan

	ERANSKINA	2020			2021	2022	GUZTIRA
		2020	2021	2022			
6. Inbertsio errealak .....	A.8	800	-	-	-	800	
7. Kapitalezko transferentziak.....	A.7	180	52	51		283	
<b>GUZTIRA</b>		<b>980</b>	<b>52</b>	<b>51</b>		<b>1.083</b>	



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Eskubide kitatuak .....	13.411
Obligazio aitortuak .....	(12.379)
<b>INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>1.032</b>
<b>AURREKO EKITALDIETAN KITATUTAKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>(433)</b>
<b>EKITALDIAREN AURREKONTUKO EMAITZA</b>	<b>599</b>
Finantzaketako desbideratzeak .....	(193)
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak .....	-
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA</b>	<b>406</b>

DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan
<b>DIRUZAINZAKO FUNTS LIKIDOAK (A)</b>	<b>4.063</b>
<b>KOBRATZEKO DAUDEN SALDOAK 2019/12/31N (B)</b>	<b>5.634</b>
Sarrerren aurrekontutik, arrunta (ikus A.10).....	2.382
Sarrerren aurrekontuetatik, itxiak (ikus A.10) .....	593
Bestelako eragiketa ez aurrekontukoak (ikus A.10).....	2.659
<b>ORDAINTZEKO DAUDEN SALDOAK 2019/12/31N (ikus A.11) (C)</b>	<b>1.694</b>
Gastuen aurrekontukoa, arrunta .....	665
Gastuen aurrekontukoa, itxiak.....	369
Sarrerren aurrekontukoa.....	1
Bestelako eragiketa ez aurrekontukoak .....	659
<b>APLIKATZEKO DAUDEN KONTU-SAILAK (D)</b>	<b>211</b>
Aplikatzeko dauden ordainketak (A.10).....	218
Aplikatzeko dauden kobrantzak (ikus A.11).....	7
<b>DIRUZAINZA GELDIKINA GUZTIRA (F=A+B-C+D)</b>	<b>8.214</b>
Zalantzaszko kobragarritasuneko saldoak (ikus A.10).....	(1.063)
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako geldikina .....	(298)
<b>GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA</b>	<b>6.853</b>
<b>ZORPETZEA 19.12.31N (ikus A.9)</b>	<b>-</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEAK 2019 ETA 2018ko abenduaren 31n Euroak milakotan

	ERANSKINA	2019	2018		ERANSKINA	2019	2018
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>		<b>38.882</b>	<b>38.901</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>		<b>45.203</b>	<b>44.681</b>
Ibilgetu ez-materiala .....	A.8	201	194	Ekarrিতako ondarea.....		14.767	14.767
Ibilgetu materiala .....	A.8	37.951	37.976	Sortutako ondarea .....		27.856	27.720
Lurraren ondare publikoa.....	A.8	666	666	Jasotako dirulag.,egotzi gab.....		2.580	2.194
Taldeko enpresetan inbertsioak...	A.8	60	60				
Epe luzeko inbertsio finantz. ....	A.8	4	5	<b>PASIBO EZ-ARRUNTA</b>	<b>A.11</b>	<b>83</b>	<b>68</b>
				Epe luzeko hornidurak .....		57	51
				Epe luzeko zorrak .....		17	17
				Hartzek. eta kobr. bst.zor batz. ....		9	-
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>		<b>8.502</b>	<b>8.113</b>	<b>PASIBO ARRUNTA .....</b>	<b>A.11</b>	<b>2.098</b>	<b>2.265</b>
Zord. eta kobr. bst knt b. ....	A.10	1.831	2.331	Epe motzeko zorrak .....		489	690
Inbertsio finan. epe motz. ....	A.10	2.608	2.606	Hartzek. eta ord. bst kontu batz....		1.609	1.575
Eskud. eta best. akt. baliok. ....	(*)	4.063	3.176				
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>		<b>47.384</b>	<b>47.014</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIB., GUZTIRA</b>		<b>47.384</b>	<b>47.014</b>

(\*) 2019ko ekitaldi itxierako saldoa ia oso-osorik kontu korranteetako gordailuei dagokie, eskudiruko 1.170 euro eta kutzako aurrerakinen 421 euro izan ezik.

2019KO ETA 2018KO EKITALDIETAKO ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA Euroak milakotan

	2019	2018
Zerga eta hirigintzako diru-sarrerak.....	4.949	4.578
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak.....	7.108	6.450
Salmentak eta zerbitzuen prestazioa .....	109	89
Kudeaketa arrunteko beste sarrera batzuk .....	835	637
<b>KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>13.001</b>	<b>11.754</b>
Langileen gastuak .....	(4.810)	(4.563)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak .....	(1.645)	(1.611)
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk .....	(4.707)	(4.536)
Ibilgetuaren amortizazioa (ikus A.8) .....	(1.232)	(1.187)
<b>KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>(12.394)</b>	<b>(11.897)</b>
<b>KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)</b>	<b>607</b>	<b>(143)</b>
Arruntak ez diren beste partida batzuk .....	8	(8)
<b>ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK</b>	<b>615</b>	<b>(151)</b>
Sarrera finantzarioak.....	14	10
Gastu finantzarioak.....	-	-
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak .....	(58)	4
<b>FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>(44)</b>	<b>14</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)</b>	<b>571</b>	<b>(137)</b>



## V.2 AMURRIO BIDEAN SA UDAL SOZIETATEA

EGOERAREN BALANTZEAK 2018KO ETA 2019KO ABENDUAREN 31N	Euroak milakotan	
	2019	2018
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b> .....	<b>3</b>	<b>4</b>
lbilgetu materiala .....	3	4
<b>AKTIBO ARRUNTA</b> .....	<b>222</b>	<b>220</b>
Merkataritzako zordunak eta kobr. beste knt. b. ....	149	124
Eskudirua eta bestel. aktibo likido baliokid. ....	73	96
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b> .....	<b>225</b>	<b>224</b>
<b>ONDARE GARBIA</b> .....	<b>158</b>	<b>166</b>
Eskrituran jasotako kapitala (ikus A.8) .....	60	60
Erreserbak.....	55	45
Ekitaldiko emaitza .....	2	10
Jasotako dirulaguntza, dohaintza eta legatuak (ikus A. 14).....	41	51
<b>PASIBO EZ-ARRUNTA</b> .....	<b>5</b>	<b>1</b>
Epe luzeko zorrak.....	5	1
<b>PASIBO ARRUNTA</b> .....	<b>62</b>	<b>57</b>
Epe motzeko zorrak .....	4	7
Merkat. hartz. eta ordaint. beste kontu batzu .....	58	50
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIB., GUZTIRA</b> .....	<b>225</b>	<b>224</b>

2018KO ETA 2019KO EKITALDIETAKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK	Euroak milakotan	
	2019	2018
Negozio zifratik zenbateko garbia (ikus A. 14).....	422	432
Hornidurak (ikus A. 14) .....	(80)	(78)
Bestelako ustiaketa-sarrerak .....	1	-
Langileria gastuak (ikus A. 14).....	(181)	(169)
Bestelako ustiapen gastuak (ikus A. 14).....	(200)	(201)
lbilgetuaren amortizazioak .....	(1)	(1)
lbilgetu ez finantzarioko dirulaguntzak egozte eta beste (ikus A. 14) .....	41	21
Hornidura gehiegizkoak .....	-	7
Beste emaitza batzuk .....	1	-
<b>USTIAPENAREN EMAITZA</b> .....	<b>3</b>	<b>11</b>
Gastu finantzarioak.....	(1)	(1)
<b>EMAITZA FINANTZARIOA</b> .....	<b>(1)</b>	<b>(1)</b>
<b>MOZKINEN GAINEKO ZERGA</b> .....	<b>-</b>	<b>-</b>
<b>EKITALDIKO EMAITZA</b> .....	<b>2</b>	<b>10</b>

## ERANSKINAK

### A.1 FISKALIZAZIO-GAI DEN ERAKUNDEAREN IZAERA

Amurrioko Udala Administrazioiko toki entitatea da, oinarriko ezaugarrietan Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak eta apirilaren 7ko 2/2026 Legeak, Euskadiko Toki Entitateei buruzkoak, arautzen dutena. Aipatutako legeek beren artikuluetan udalek ematen dituzten eskumen edo zerbitzu publikoak definitzen dituzte, besteak beste: segurtasuna, garbiketa-zerbitzua, suteak itzaltzeko zerbitzua, ur-hornidura, saneamendu-sarea, argiteria publikoa, hirigintza-diziplina eta kultura- eta kirol-jarduerak.

Udalek zerbitzuak zuzenean edo zeharka eman ditzakete. Udalak berak kudeaketa zuzena gauza dezake edo toki entitate autonomoak, merkataritzako sozietate publikoak, mankomunitateak eta partzuergoak sortuta.

### A.2 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

2019ko ekitaldirako aurrekontua 2019ko apirilaren 25eko Udalbatzak onetsi zuen hasiera batean eta ALHAOn maiatzaren 10ean eman zen argitara. Jendaurrean jartzeko epea erreklamaziorik jaso gabe igaro ondoren, behin betiko onartutako aurrekontua 2019ko ekainaren 14an argitaratu zen ALHAOn.

Udalaren eta bere erakunde autonomoaren aurrekontuko likidazioak bereizirik aurkezten ez badira ere, bakoitzaren aurrekontuak bereiz onartzen dira eta aurrekontuko aldaketan bai izapidea, bai onespena modu bereizian egiten dira.

Hona hemen, 2019ko aurrekontu-aldaketak kapituluka xehakaturik:

KAPITULUAK	Euroak milakotan				
	TRANSFERENTZIAK		KREDITUEN GAIKUNTZA		GUZTIRA
	UDALA	EA	UDALA	EA	
2. Ondasun arrunt eta zerbitz. kontrat. ....	(78)	-	91	20	33
4. Transferentzia arruntak .....	(27)	-	5	-	(22)
6. Inbertsio errealak .....	147	-	547	-	694
7. Kapitalezko transferentziak .....	(42)	-	-	-	(42)
<b>GASTUAK, GUZTIRA</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>643</b>	<b>20</b>	<b>663</b>

Udalari dagokionez, ekitaldian aurrekontua aldatzeko 35 espediente izapidetu ziren eta horietako 29 Alkatetza Dekretu bidez onartu zituzten; gainerakoak, berriz, Udalbatzara eraman ziren onartzeko. Amurrioko Udalaren Musika Fundazioaren aurrekontuan eragina izan zuten bi aldaketak aipatutako erakunde autonomoko zuzendaritza-organoak onartu zituen. Termino kontsolidatuetan, 16,3 milioi euroren hasierako aurrekontua % 4 handitu zen, eta behin betiko aurrekontua 16,9 milioi euroena izan zen.

Kreditu-gaikuntzak transferentzia arruntekin eta kapital-transferentziekin finantzatu ziren, 116.207 euroan eta 546.946 euroan, hurrenez hurren. Adierazgarrienak honako taula honetan jaso ditugu:

	Euroak milakotan
PROIEKTUA	ZENBATEKOA
Saneamenduko sare bereizlea industrialdeetan .....	304
Basotzea eta kalteen prebentzioa mendietan .....	77
Lucas Rey Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastegian inbertsioak .....	64
Eguzki-instalazio fotovoltaikoak .....	61
Beste txiki batzuk.....	157
<b>GAIKUNTZAK GUZTIRA</b>	<b>663</b>

2019ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa 2020ko otsailaren 10eko Alkatetzaren Dekretu bidez onartu zen eta Kontu Orokorra 2020ko azaroaren 26ko Udalbatza bitartez.

### A.3 ZERGAK, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen 2019ko ekitaldian zerga zuzen, zeharkako, tasa eta bestelako sarreren kontzeptuan kitaturiko eskubideen xehakapena:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	ESKUBIDE KITATUAK
OHZ.....	2.179
TMIZ .....	643
HILBIZ .....	5
JEZ.....	230
<b>ZERGA ZUZENAK GUZTIRA</b>	<b>3.057</b>
EIOZ.....	395
<b>ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA</b>	<b>395</b>
Lurraren, lur azpiaren edo airearen aprobetxamendu berezia enpresa hornitzaileen alde .....	548
Hiri-hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzua emateagatiko tasa.....	196
Musika irakaskuntzako zerbitzuak emateagatiko tasa.....	192
Ibilgailuak sartz. eta aparkalek. erreserbatzeagatik, erab. pribatiboa edo aprobetx. berezia .....	169
Hirigintzako lizentzien tasak.....	119
Amurrio Antzokiko ikuskizunetarako sarrerak .....	87
Beste txiki batzuk.....	346
<b>TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>1.657</b>
<b>1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA</b>	<b>5.109</b>

2013an, Udalak erabaki zuen Kantauriko Urkidetza partzuergoari lagatzea uraren ziklo integralaren kudeaketa eta abonatuaren eta diru-bilketaren kudeaketa, kudeaketa-mandatuaren bidez; halaber, udalaz gaindiko erakundeak bere gain hartzen ditu zerbitzuaren diru-sarrerak eta gastuak eta horregatik ez dira kontabilitatean erregistratzen.

2018. urtera arte, Partzuergoak kudeatzen zituen, halaber, hiri-hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzua emateagatiko tasa gehienak, eta urte horretan itzuli zizkion Udalari. 2019ko ekitaldia ixtean kontabilizatu gabe zeuden partzuergoak 2016an eta 2017an zerbitzua emateagatik kudeatutako tasa guztiei zegozkien diru-sarrerak, 705.049 euro (ikus II.2).

2019ko ekitaldian kontabilizatutako diru-sarrerei dagokienez, 2018ko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetakoak soilik dira; izan ere, ekitaldi hori ixtean, 2019an zerbitzua emateagatiko tasak ez ziren kobratzeko jarri, honako koadro honetan ikus daitekeenez:

KITATUTAKO ALDIA	Euroak milakotan	
	KOBRANTZA ALDIA	ERROLDA ZENBAT.
2019ko lehenengo hiruhilekoa.....	27/01/20 - 26/03/20	98.391
2019ko bigarren hiruhilekoa.....	29/06/20 - 28/08/20	99.632
2019ko hirugarren hiruhilekoa.....	21/10/20 - 21/12/20	98.918
2019ko laugarren hiruhilekoa.....	28/12/20 - 01/03/21	98.898
<b>GUZTIRA</b>		<b>395.839</b>

Atal honetako gainerako zerga, tasa eta sarrerei dagokienez, Udalak bere gain hartu du horien kudeaketa borondatezko aldian eta 1989ko martxoaz geroztik lankidetzaz-hitzarmen bat du BFArekin betearazte bidean diru-bilketa egiteko.

HILBIZaren kasuan, 2019ko ekitaldia ixtean 2015etik aurrera egindako eskualdaketei zegozkien zergaren likidazioak egiteke zeuden, eta koadroan agertzen diren diru-sarrerak zergadunek aurkeztutako autolikidazioei dagozkie. 2019ko abenduaren 20an, zerga kudeatu, likidatu eta biltzeko lankidetzaz-hitzarmena sinatu da Amurrioko Jabetza Erregistroko erregistratzaile titularrarekin (2020ko urtarrilaren 22ko ALHAO).

Ibilgailuak finken eta gordetako aparkalekuen barrura sartzeagatiko erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasaren kasuan, 2019ko ekitaldian urteko erroldari dagozkion diru-sarrerak (56.409 euro) bi aldiz erregistratzen dira (ikus II.2 atala), eta aurreko urteko errolda ere kontabilizatzen da, zenbateko berean, 2018an ez baitzen diru-sarrerarik kontabilizatu kontzeptu horren izenean.

Gainera, 2019ko ekitaldia ixtean, udal-bide publikoetako lurzorua, zorupearen edo hegala erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasei zegozkien diru-sarrerak zeuden, 211.134 euroren zenbatekoan sortu eta kontabilizatu gabeak (ikus II.2).

#### A.4 TRANSFERENTZIEK ETA DIRULAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

2019ko ekitaldian transferentzia eta dirulaguntza arrunt eta kapitalezkoen kontzeptuan kitatutako eskubideak honako hauek izan dira:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	ARRUNTAK	KAPITALEZK.
<b>Estatuarenak</b>	<b>14</b>	<b>-</b>
<b>EA Erenak</b>	<b>288</b>	<b>328</b>
AO: Larrabeko zabortezi zaharra zigilatu eta ixtea (kutsatut. lurzorua).....	-	197
AO: udal jabetzako musika-irakaskuntzako zentroak.....	134	-
AO: udal jabetzako musika-irakaskuntzako zentro publikoetan inbertsioak .....	-	64
AO: Hainbat dirulaguntza .....	80	26
Lanbide: enplegu-programak .....	54	-
Beste txiki batzuk (SPRI, IHOBE, IVAP eta Lanbide).....	20	41
<b>ALHrenak</b>	<b>6.741</b>	<b>115</b>
AFA: Zerga itunduetan partaidetza FOFEL .....	6.254	-
AFA: enplegu-programak .....	73	-
AFA: Hainbat dirulaguntza .....	46	55
Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: GLL .....	105	-
Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: etxebizitza komunitarioa .....	105	-
Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: eguneko arretarako landa-zentroa .....	100	-
Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: Oinarrizko gizarte-zerbitzuak.....	58	-
Arabako Industrialdea SA: saneamendu-sarearen hitzarmena.....	-	60
<b>Irabazi asmorik gabeko entitateenak</b>	<b>2</b>	<b>-</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>7.053</b>	<b>443</b>

Arabako Foru Aldundia eta Udala lankidetzan aritu dira pobreziaren aurkako borrokan, bazterkeriaren aurka dauden programak garatu eta gauzatzeko, elkarren segidako lankidetzak-hitzarmenen bidez. 2019ko abenduaren 3an sinatutako hitzarmenean aurreikusitakoaren arabera, GLLei dagozkien funtsen transferentziak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bidez egin ziren.





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## A.5 LANGILEEN GASTUAK

Hona hemen kapitulu honen xehakapena 2018ko eta 2019ko ekitaldietako aurrekontuaren likidazioari, LZn jasotako lanpostu kopuruari eta 2019ko abenduaren 31ko plantillari dagokionez:

KONTZEPTUA	OBLIGAZ.		LANPOSTU KOPURUA 2019-12-31N					
	AITORT. 2019	AITORT. 2018	UDALA		EA		GUZTIRA	
			LZ	PLANT.	LZ	PLANT.	LZ	PLANT.
Udalkideen ordainsariak.....	218	223	E/E	3	E/E	-	E/E	3
Funtzionarioen ordainsariak .....	2.728	2.615	74	(1) 68	-	-	74	68
Lan kontratupeko langil. ordainsariak...	781	715	-	(2) 17	(3) 16	18	16	35
Gizarte Segurantzza .....	957	895						
Elkarkidetza .....	71	65						
Beste gizarte-gastu batzuk .....	48	46						
<b>LANGILERIA GASTUAK, GUZTIRA</b>	<b>4.803</b>	<b>4.559</b>	<b>74</b>	<b>88</b>	<b>16</b>	<b>18</b>	<b>90</b>	<b>106</b>

(1) Bitarteko 22 funtzionario eta karrerako 2 funtzionario praktiketan barne hartzen ditu.

(2) Kontratu mugagabe ez finkoko 9 langile barne hartzen ditu, eta horietatik 7k izaera hori 2019an eskuratu zuten.

(3) Ez da adierazi lanpostuak lan kontratupeko langileentzat edo langile funtzionarioentzat gordeta dauden.

### Ordainsariak

Udalbatzak, 2019ko azaroaren 28an, langileen ordainsariak % 2,25 handitzea erabaki zuen, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, eta % 0,25eko igoera gehigarria aplikatzea, 2019ko uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin, Sektore Publikoaren eremuan ordainsarien arloko premiazko neurriak onartzen dituen abenduaren 21eko 24/2018 Errege Lege Dekretuan xedatutakoaren arabera.

2019ko ekitaldian, gainera, 9 lanposturen ordainsariak egokitu eta onartu ziren, langileen ordezkariekin adostutako Giza Baliabideen Planean aurreikusitakoa betez.

### LZ eta plantilla

2019ko ekitaldian izan diren plantillako mugimenduak ondotik laburbildu ditugu:

	Kopurua	
	ALTAK	BAJAK
Udalkideak .....	1	-
Karrerako funtzionarioak .....	4	(*) 4
Bitarteko funtzionarioak .....	15	11
Aldi baterako lan-kontratuko langileak .....	22	30
Enplegua sustatzeko aldi baterako lan-kontratuko langileak .....	5	6
<b>GUZTIRA</b>	<b>47</b>	<b>51</b>

(\*) 2 laneko ezgaitasun iraunkor, 1 ukapen eta 1 erretiro.



2019ko ekitaldian, dedikazio eskusiboa duten zinegotzien kopuruak gora egin du, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 33. artikuluan xedatutakoa betetzeko (oposizioaren estatutua arautzen du lege horrek).

Funtzionarioen altei dagokienez, horietako 3 udaltzainei dagozkie, eta horietatik bik ez zuten amaitu praktikaldia ekitaldiaren amaieran. Bestea, berriz, administrari laguntzailearen plaza bat betetzeko zen, zeina, lehen aipatutako udaltzainen lanpostuak bezala, zegoion EPEan sartu baitzen.

Udalaren LZ ez zaio plantillako egiturazko beharrei egokitzen udal eskola artistikoari dagokionez eta behar horiek aldi baterako kontratazio bidez asetzen ditu. Horren ondorioz, bederatzi pertsona lan-kontratu mugagabeko langile ez-finko bihurtu dira: horietako bat 2017an, beste bat 2018an eta gainerakoak 2019an. Lehenengo kasuan, izaera hori judizioz kanpoko akordio baten bidez aitortu zen, eta, horren ondorioz, atzera egin zuen langileak lan-arloko jurisdikzioan jarritako demandan. Gainerako kasuetan, epai judizialek ezarri dute aitorten hori.



## A.6 ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Hona hemen kapitulu honetan erregistraturiko kontzeptu esanguratsuen xehakapena:

	Euroak milakotan
DESKRIBAPENA	OBLIGAZ. AITORT. 2019
<b>Errentamenduak</b>	<b>100</b>
<b>Ibilgetuaren konponketak, mantentze lanak eta zaintza</b>	<b>369</b>
Azpiegitura eta ondasun orokorrak .....	142
Eraikin eta bestelako eraikuntzak .....	165
Beste ibilgetu bat .....	62
<b>Bulegoko materiala</b>	<b>43</b>
<b>Hornidurak</b>	<b>660</b>
Energia elektrikoa .....	345
Gasa eta erregaiak .....	91
Ura .....	54
Bestelako hornigaiak.....	170
<b>Komunikazioak</b>	<b>53</b>
<b>Garraioak</b>	<b>37</b>
<b>Aseguru primak</b>	<b>59</b>
<b>Zergak</b>	<b>38</b>
<b>Hainbat gastu</b>	<b>475</b>
Jarduera soziokulturalak.....	229
Argitalpenak, publizitatea eta propaganda.....	59
Bestelako hainbat gastu.....	187
<b>Kanpoko enpresek egindako beste lan batzuk</b>	<b>2.727</b>
Amurrio Bidean SA Sustapen ekonomiko eta turistikoaren zerbitzua (ikus A.14).....	374
Udal eraikinak garbitzeko zerbitzua.....	202
Kale-garbiketa zerbitzua .....	180
Droga-mendekotasunak prebenitzeko zerbitzua.....	150
Kirol instalazioak kudeatzeko zerbitzua .....	140
Bañuetako kiroldegiaren 2017ko defizita .....	107
Etxebizitza komunitarioaren kudeaketa zerbitzua San Mames Etxea .....	98
Eguneko arretarako Landa-zentroaren kudeaketa zerbitzua .....	76
"Auxe Da" udal buletina argitaratzeko zerbitzua .....	66
Herritarren partaidetzarako eta gardentasunerako zerbitzua .....	64
Amurrio antzokiari laguntza teknikoa.....	62
